

BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILA

5666

EBAZPENA, 2024ko azaroaren 22koa, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren zuzendariarena, EAEko elkarte edo fundazioek memoria demokratikoa berreskuratzeko proiektuak egiteko 2024ko dirulaguntzen deialdia ebazten duena.

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendariaren 2024ko abuztuaren 2ko Ebazpenaren bidez, EAEko elkarte edo fundazioek memoria historikoa berreskuratzeko garatzen dituzten proiektuak diruz laguntzeko deialdia egin zen 2024rako.

Ebazpen horren 13. artikuluan izendatutako epaimahai kalifikatzaileak dirulaguntzak emateko egindako proposamena aztertuta, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– I. eranskinean zerrendatutako erakundeek aurkeztutako eskabideetan atzera egitea onartzea, eranskinean bertan ematen diren arrazoiengatik.

Bigarrena.– II. eranskinean zerrendatutako erakundeek aurkeztutako eskabideak ez onartzea, eranskinean bertan ematen diren arrazoiengatik.

Hirugarrena.– Memoria historikoa berreskuratzeko proiektuak egiteko laguntzak III. eranskinean zerrendatzen diren erakundeei esleitzea, aipatutako eranskinean zehazten diren zenbatekoen arabera. Laguntza horiek minimis izaera dute, eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuen 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzko Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2831/2023 (EE) Erregelamenduari lotuta daude (2023-12-15eko EBAO, L 2831. zk.).

Laugarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioko Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erki-dearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

Bilbao, 2024ko azaroaren 22a.

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren zuzendaria,
ALBERTO ALONSO MARTIN.

2024ko abenduaren 11, asteazkena

I. ERANSKINA

ATZERA EGINDAKO ESKABIDEAK

Kodea	Izena	Proiektua	Atzera egitea
006	Asociación Gukmedia Kultur Elkartea	«Hemen gertatu zen»	Interesdunak atzera egin du eskabidean
019	Euskal Prospekzio taldea. Asociación Vasca de Investigación, Prospección y Catalogación	«Localización de fosas de la guerra civil en Saibigain-Parque natural de Urkiola»	Interesdunak atzera egin du eskabidean

II. ERANSKINA

BAZTERTUTAKO ESKABIDEAK

Kodea	Izena	Proiektua	Baztertzeko arrazoa
004	Fundación Ramón Rubial	«Virginia González Polo»	Ez du deialdiaren 1. artikuluan ezarritakoa betetzen, ez dago (1936-1977) denbora-esparruaren barruan
005	Goldatu Elkarre Sozio-Kulturala	«Oroimenaren aldeko eta inpunitatearen aurkako proiektuak aurrera darrai»	Ez du deialdiaren 12. artikuluan ezarritakoa betetzen, ez du behar bezala zuzendu
012	Euskal Herriko Giza Eskubideen Behatokia Gebehatokia	«Estatuaren biktimekiko diskriminazioa gainditzea (1936-1978 aldia)»	Ez du deialdiaren 1. artikuluan ezarritakoa betetzen, proiektua ez dago deialdiaren xedearen barruan
014	Kaia, Santurtziko Historiazaleak Kultur Elkarrea	«Santurtziarras fallecidos en la Guerra Civil (1936-1939)»	Ez du deialdiaren 12. artikuluan ezarritakoa betetzen, eta ez du legez ezarritako epean zuzendu

2024ko abenduaren 11, asteazkena

III. ERANSKINA

ERAKUNDE ESLEIPENDUNAK

Kodea	Izena	Proiektua	Dirulaguntza (eurotan)
001	Fundación Ramón Rubial	«Biografía Antonio Amat Maiz. Resucitar el socialismo en tiempos de dictadura (1919-1979)»	5.000,00
002	Fundación Ramón Rubial	«Biografía Enrique de Francisco. Del Socialismo Tolosano al Exilio Mexicano (1878-1957)»	4.000,00
003	Fundación Ramón Rubial	«Biografía Julián Zugazagoitia. 125 aniversario de su nacimiento»	4.300,00
007	Asociación República Irunesa Nicolas Guerendiain	«Investigación, Formación y Homenajes»	2.752,80
008	Asociación para la Defensa de la Dignidad Humana	«En Memoria de las Víctimas del Terrorismo durante el Franquismo y el inicio de la Transición (1960-1977)»	840,00
009	Asociación K.I. Cultura Abierta	«Compromiso con las libertades de la creación vasca (1973-1982)»	5.685,60
010	Asociación Pausumedia Elkartea-Komunikaziorako Eskubidea-Derecho a La Comunicación	“Ikastolen Sorrera Frankismo Garaian, Euskararen Erresistentzia Aktiboa”	5.100,00
011	Sabino Arana Fundazioa	«2024 urteko egitaraua»	5.100,00
013	Fundación Jesús María de Leizaola	«Juan Gracia Colás Erakusketa»	6.069,55
015	Asociación de Investigación por la Paz de Gernika Gogoratuz	«Lurdes Euzko Aur-Etxea: euskal haur erbesteratuen babes-etxea (Jatsu, 1937-1939)»	7.100,00
016	Pipergorri Kultur Elkartea	«Gernikako Guerra-Presoen Ospitale Militarra (GGPOM)»	3.240,00
017	Tekum Fundazioa	«Emakumea frankismoan. Gizonarekiko menpekotasuna»	1.982,11
018	Fundación Asmoz de Eusko Ikaskuntza	«Evolución de la situación legal, política y social de la mujer desde la II República hasta el franquismo»	6.200,00
Guztira			57.370,06